



Euskal selekzioak sarturiko gol bietako bat nirea izatea ohorea da

IKER UNZUETA ARREGI
Futbol jokalaria • 28

Igurian izandako azken istripuen aurrean, bertako auzotarrak protestan irten dira bidera

Elorrio | Iguria auzoko herritarrek dei egin diote udalari oinezgune bat ipini dezan auzoa eta herrigunea batzeko • 6



Errotaritzuena Durangoko parke berdea marrazten

Iratxe Txintxurreta Arzubia arkitektoak Errotaritzuena parkea birdiseinatzeko ardura du, Durangoko Udalak halantxik enkargatuta. Parkearen nortasun berdea mantendu gura du, baina bertan askotariko edukiak izango dituzten gunek diseinatuta. Proiektua, oraingoz, aurreproiektu fasean dago • 2. orrialdea

Gabonak
2019

ALKIMAX
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Zorionak eta Urte berri on!

Heldu da euriaren eta hotzaren garaia...



INFRAGORRIAK



AIRE KANOIAK



ERRADIADOREAK



HEZETASUN-KENGAILUAK



FAROLAK



Iratxe Txintxurreta
Arzubia
Errotarixuenako parke
berriaren arkitektoa
Durango | 1975

“Errotarixuena herritarrek berdegunean egoteko parkea izatea gura nuke”

Iratxe Txintxurreta arkitektoa Errotarixuena parkea birdiseinatze arduraduna da. Bere proposamena aurreproiektu fasean dago, eta, orain, herritarrek egindako ekarpenak aztertzen ari da udala, horietariko batzuk, gero, proiektuan islatuta geratu daitezkeen.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berdegunea eta bertan egotea ahalbidetuko duten guneak. Berba gutxitan, horietek dira Iratxe Txintxurreta arkitektoa Errotarixuena parkea eraberritzeko oinarri modura hartutako irizpideak.

Errotarixuena parkea eraberritzeko enkargua jaso duzu udalaren partetik. Zein helburu nagusi bete gura du parkeak?

Esango nuke parkea edukiz betetzea dela helburu nagusia. Nahiko azalera handia du, eta asmoa da parkeak gaur gaurkoz duen nortasun berdea mantendu eta horren gainean askotariko erabilera izango duten guneak ahalbidetzea.

Zeintzuk dira, zelanbait esateko, parke honi gaur gaurkoz ikusten dizkizun gabeziak?

Bertan egotea ahalbidetzen duten elementuen falta igartzen dut. Egoteko lekuak, jesarrira egoteko elementuak. Udan jende asko etortzen da toalla hartuta etzatera. Toki lasai eta polita da, baina, momentu honetan, ez du berdeguneaz gozatzeko aukera handirik ematen. Honetaz gainera, belardien bueltan dauden zintarriak ez ditut egoki ikusten. Irisgarritasunari begira, zintarriak kentzea proposatzen dut. Gainera, badirudi berdeguneetarako sarbidea oztopatzen dutela.

Zeintzuk dira zuk landutako aurreproiektuan deskribatzen diren ezaguri nagusiak?

Parkeak hainbat gune izango ditu,

baina horrek ez du esan gura gune bakoitzak nortasun itxi bat izango duenik. Gune batzuk izan daitezke eguzkitsuak, beste batzuk gerizpitsuak, mendira begirakoak. Bakoitzak askotariko edukiak izango ditu. Eta gune horietara denetara heltzea ahalbidetuko duen elementu bat sartuko dut horretarako: eserleku luze bat.

Beraz, eserleku luze bat izango da parkeko guneen lotura eta ardatza markatuko dituen.

Ez nuke esango parkearen ardatza izango denik, baina bai parkearen 'hari gidaria', zelanbait esateko. Elementu lineal bat izango da. Niri egokituko zait eserleku horren diseinua egitea. Eta eserleku horren espazio bakoitzak bertan egon ahal izateko modu asko eskainiko ditu, bai parkeko gune bakoitzarentzat, bai adin tarte bakoitzarentzat. Ideia da hainbat aukera sortzea: etzanda egoteko, eserita, botata, irakurtzeko posizioan, kartetan aritzeko edo umeekin lasai egoteko. Eserleku horrek parkeko guneak lotuko ditu eta bidexka batez lagunduta joango da.

Udalak eta herriko zenbait elkarterik parke berriak izan beharreko gutxieneko edukiak eskatu dizkizute. Zeintzuk dira?

Umeentzako jolasak, tirolina eta adinduentzako makinak ipintzea izan dira markatutako gutxieneko batzuk. Berdegunea ahalik eta gehien mantentzea ere izan da beste eskarietariko bat. Dagoena ahalik

eta gehien aprobetxatzen ahalegindu naiz.

Aurreproiektua diseinatzerakoan, aske sentitu zara? Mugatuta?

Arkitektoa naizen heinean, ohituta nago bezeroen irizpideak kontuan hartuta lan egitera. Hortik kanpora, guztiz aske egon naiz. Askoz ere okerrago egon naiz beste proiektu batzuetan! (barrez).

Aurreproiektua azaroaren 28an aurkeztu zenuen, Zabalarra eskolan, herritarren aurrean eta udaleko ordezkariak lagunduta. Zer esan dizute auzotarrek?

Batzararen amaieran, herritar batzuk iritzia ematera etorri zitzaizkidan. Ekarpenean egin zizkidaten, proposamenean bota zizkidaten. Baina aurreproiektuari egindako kritikarik gehienak positiboak izan ziren.

Errotarixuena izango ote da Durangok etorkizunean edukiko duen parkerik berrizaleena?

Azalera handiko parke berde bakkarenetakoa izango dela iruditzen zait. Ezkurdi harriz estalita dago. Landako Erakustazokaren inguruan badira berdeguneak, baina apenas erabiltzen dira, eta Pinondon berdegune gutxi dago. Errotarixuena herritarrek berdegunean egoteko parkea izatea gura nuke.

Zerbait gehitzea gustatuko litzazuke?

Parkea asko erabiltzea gustatuko litzaidake. Zarata handirik ez dadila egon, eta, bereziki, zaindu dadila bertan ipiniko den ondarea.

Errotarixuenako aurreproiektuak ikuskizunak egiteko eremua, jolasguneak, ariketa fisikorako makinak eta erlaxatzeko guneak batzen ditu

Aurreproiektua otsail bueltan bihurtuko da proiektu. Hortik aurrera, udalak faseka eta atalka ekingo dio parkea eraberritzeari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Errotarixuena parkearen etorkizuna mugimenduan dago, bizirik. Aurreproiektua da indarrean dagoena. Hau da, parkeak izango lituzkeen gauzatariko asko finkatuta daude, baina horrek ez du esan gura dena erabakita dagoenik. Horregatik, ondoko irudia behin-behineko parkearen egitura lez ulertu behar da. Batetik, Txintxurreta arkitektoak markatutako eserlekua ageri da parkearen hari gidari modura. Inguruan, izaera eta eduki askotariko guneak ere badaude. Dena dela, moldaketak egin daitezke.

Epeak

Udalak, proiektua egin ahal izateko diru partida prestatu eta osoko bilkurara eramateko asmoa du. Horren ondoren, otsail bueltan, aurreproiektua proiektu bihurtuko du. Azkenik, lizitazioen prozesua martxan ipini (ekaina-uztaila), eta lanak abuztuan hasiko lirarteke. Urte amaieran egongo lirarteke amaituta. Behin betiko parkea osatu arte, udalak faseka eta atalka egingo ditu lanak.



1 Atsedenerako eserlekua, parkearen bizkarrezurra

2 Ikuskizunetarako gunea.

Dantzak, antzerkia, kontzertuak.

3 Adinduen aktibitaterako makinak.

4 Umeen jolasgunea (0 - 3 urte).

5 Umeen jolasgunea (6 - 12 urte).

6 Gazteen kirolgunea.

7 Atsedenerako sareak.

"Gure umeak modu librean jolasten dira parke honetan, naturan; dagoen berdegunea mantentzea eskatzen dugu"

Parkeko argiztapena hobetzea, eserleku gehiago ipintzea eta aterpe bat egitea dira auzotarren eskarietarikoz batzuk. Udalak ur-txorrotak ipintzeko hartutako erabakia txalotu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Oso pozik gaude udalak ur-txorrotak ipintzeko hartu duen erabakiagaz. Umeei izugarri gustatzen zaienez, sarri jo behar izan dugu Iurretako txorrotetara. Erabakia txalotzen dugu", diote Ana Nuñezek eta Errotarixuena parkearen inguruko beste hainbat bizilagunek. Durango-ko Udalak bere egin ditu herri-tarren eskarietako batzuk, eta ur-txorrotak ipiniko dituela aurreratu dio berripaper honi asteon. Baina beste eskari batzuk ere badituzte auzotarrek.

"Berdeguneak mantentzea ere eskatzen dugu. Denborak erakutsi digu gure umeak modu librean jolasten direla bertan, hostoekin, arramekin eta naturak ematen dituen euskarriak baliatuta", dio Aramotzeko guraso taldeak. Argiztapena hobetzea, eserleku gehiago ipintzea edo arbola kopurua gehitzea ere eskatu dute.

Durango Familiak

Durango Familiak Elkarteak uste du "udalak aurkeztu duen proiektua bide onetik do-



Ekhiotz Aranguena (Beñategaz), Leire Seara (Danelegaz) eta Ana Nuñez dira parkearen erabiltzaileetarikoz batzuk.

la", baina azpimarratu du "hau lehenengo pauso bat" baino ez dela. Euria egiten duenerako aterpe bat egokitzea ere bada elkartearen eta auzoko hainbat bizilagunen beste eskarietako bat. Udalak ez du aterpea ipin-

tzerik baztertzen. Gune estali bat eraikitzea "interesgarri" ikusten du, baina, une honetan, herrian lehendik dauden beste "alternatiba" batzuk baliatzea aztertzen ari da, Landako Erakustazoka zabaltea kasu.

Bestalde, Durango Familiak elkarteak gazteen jolasguneak handitzeko proposamenak egin ditu: "Skate park, pump track, bmx pista edo parkour" kirolak sustatzeko gune gehiago gura lituzke etorkizunean.

Durangoko herritarrek, bozketa bitartez, aurrekontu parte-hartzaileetan erabakiko dute udalak ipinitako 600.000 euroak zelan inbertituko diren

Udalak markatutako 16 proposamenetan diru hori zelan banatuko den erabakiko dute herritarrek. Abenduaren 16an, 17an, 19an eta 20an, prozesua aurkezteko saioak egingo dira. Horren ondoren, 16 proposamen horietako 3 bozkatu ahalko ditu herritar bakoitzak (abenduaren 16tik urtarrilaren 13ra)

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak 600.000 euro ipiniko ditu herritarren eskura, bozketa bitartez diru hori zelan proiektuan inbertituko den erabaki dezaten. Udalak 16 proiektu proposamen ditu esku artean, eta horien artean erabaki beharko dute herritarrek. 2020ko aurrekontuetan islatuta geratuko dira sostengurik gehien duten proiektuak.

Saio irekiak eta bozketak

Prozesu parte-hartzaile honi buruz informatzeko, udalak bilerak egingo ditu herritarrekin. Abenduaren 16an Elkartegian egingo dute, 17an San Faustoko elizan, 19an Zabalarra eskolan eta 20an udaletxe bilkura aretoan. Saio guztiak 19:00etan



Udal ordezkariak eguenean egin zuten proposamenak aurkezteko agerraldia.

izango dira. Botoa emateko hautesontziak liburutegian, Landako II kiroldegian eta Herritarren Arreta

Zerbitzuko bulegoan egongo dira. Web bitartez ere bozkatu ahalko da partehartu.durango.eus atarian.

16 proposamenak, banaka

- 1) Ibaizabal parkean kirol-entrenamendurako guneak sortzea
- 2) Landako I kiroldegiko eskalada boulderra hobetzea
- 3) BTT bizikletak garbitzeko postua ipintzea
- 4) Udalaren web orria berrietzea
- 5) Airearen kalitateari lotutako informazio panela ipintzea
- 6) Zuhaitzak landatzeko kanpaina
- 7) Umeen parkeak eta txin-txaunak hobetzea
- 8) Puntu beltzak eta itzalaldiak ekiditeko kuadro elektrikoen partida handitzea
- 9) San Fausto jaien diru-partida handitzea
- 10) Etxebizitzen alokairurako laguntzak handitzea
- 11) Ke detektagailuak ipintzeko diru-laguntzak handitzea
- 12) Herritarren partaide-tza sustatzeko web orria sortzea
- 13) Disuasio aparkalekua ipintzea Gernikako Arbola biribilgunearen ondoan
- 14) Mikeldi idoloa berreskuratzeko lanak egitea
- 15) Herri-ortuak sortzeko proiektua diseinatzea
- 16) Aldagela berriak eraikitzea Tabira polikiroldegian

Madalenako auzotarrek zapatu honetan ospatuko dute Gabon zahar gaua, abenduaren 31n barik

Auzo Alai elkarteak azaldu duenez, Gabon zahar gaua "bakardadean" eta "triste" pasatzen duten bizilagunentzat pentsatutako jaia izango da, adinduentzat gehienbat

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gabon zahar gaua aurreratu, eta Madalenako auzotarrek zapatu honetan egingo dute jaia. Amaia Palacio Auzo Alai elkarteak kideak dioenez, "adinduak diren bizilagun askok bakardadean pasatzen dute Gabon zahar gaua, triste". Zapatukoak aukera eman gura du "Gabon zahar gaua auzotarrekin ospatzeko".

Madalena ermitako kanpaiak 21:00etan aktibatuta jango dute mahatsa. Bakoitzak bere mahatsaleak eraman beharko ditu. 17:00etan txokolatada eta dantzak egingo dira. Otzara bat ere zotz egingo dute, eta kanpaien ondoren DJ bat ere egingo da.



Madalenako auzotarrek auzoko jaiak ospatu zituzten uztailen.

San Antonio ikastetxeak bat egin du bidezko merkataritzagaz

Postu bat ipini dute sarreran, askotariko produktuekin; astelehenean eta martitzenean ere han egingo dira

DURANGO • J.D.

San Antonio DBH ikastetxeko sarreran, askotariko produktuak dituen postu bat dago egunotan. Kafea, marmelada, zuku... denerik erosi daiteke. Merkataritza justuago bat sustatzen duen Kidenda-tik hartu dituzte produktuak, eta salmente-

kin batutako dirua bertara itzuliko dute, bitartekaririk barik. Izan ere, horixe dute helburu, bidezko merkataritza sustatzea. Astelehenean 11:35etik 13:15era eta 16:30etik 17:30era egongo dira han, eta martitzenean 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 17:30era.



San Antonioko ikastetxeko ikasleak salmenta postuan.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko abenduaren 13a
18. urtea - 788. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Berrizen osagarri eta bitxigintza tailerra egingo dute abenduaren 26an

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Lehen Hezkuntzako haur, gazte eta familientzat osagarri eta bitxigintza tailerra antolatuko dute Berrizen. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, egurra eta feltroa material nagusitzat hartuta, osagarri eta bitxiak sortzeko aukera izango dute tailerrera bertaraten direnek.

Ikastaroa abenduaren 26an izango da, 16:30etik 18:30era bitartean, Kultur Etxean.

TAOaren egoiliarren kuotan %50eko konpentsazioa eskatu du EH Bilduk

IURRETA • AITZIBER BASAURI

EH Bilduk azaldu duenez, N-634 errepideko lanek kaltetu egin dituzte TAO zerbitzuko egoiliarren kuota ordaindu behar duten herritarrek, zonalde laranja horietan aparkatzeko aukera mugatu delako. Koalizioaren ustez, udalak konpentsazioa eman beharko lieke. Gaineratu du 2019ko kuotaren erdia itzultzea izan litekeela aukeratariko bat. Beste bat, 2020ko kuotan %50eko beharpena eskaintzea. Mozioa aurkeztu dute gaia lantzeko.

“Kofradiak herrira hurbiltzea eta horien funtzionamendua gaurkotzea dugu erronka”

Kofradien Batzorde Nagusi berrian belaunaldi aldaketa bat izan da eta, lehenengoz, emakume bik parte hartuko dute



Gorka Lazkano, Alaitz Gerediaga eta Goiuri Sopelana, lurretako Kofradietako Batzorde Nagusiko kideak.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Azaroan lurretako sei kofradietako –lurreta, San Marko, San Fausto, Santa Marina, Goiuria eta Orozketak– ordezkari berriak aukeratu ondoren, eguaztenean eratu zuten Kofradien Batzorde Nagusi berria. Goiuriko Gorka Lazkano da lehendakari berria, lurretako Alaitz Gerediaga diruzaina eta Santa Marinako Goiuri Sopelana idazkaria.

Zeintzuk dira dituzuen erronka eta helburuak?

Gorka Lazkano: Belaunaldi aldaketa bat egon da, nahitaez, eta emakumeak ere sartu dira. Bada, Batzorde Nagusia gaurkotu egin da apur bat. Kofradiak herrira hurbiltzea eta horien funtzionamendua gaurkotzea izan beharko luke erronka nagusietako bat. "Herrira eta kofradia hasarratu ziren..." dio Mikel Urdangar-

rinen kanta batek. Bada, herria eta kofradia maitemintzea gura dugu. Azken urteetan, herriak ez ditu bere sentitu kofradiak, askok ez dakite zer diren, zertarako diren, okerreko iritziak daude... Herrira zabaldu gura ditugu, zer diren azaldu, gaur egungo tresnak erabilia; denon onurarako direla erakutsi. **Zein da kofradien funtzioa?**

G.L.: Orain 160 urte, herriak 200

hektareko lur eremu bat erosi zion udalari, eta horren ustiapenetik ateratako etekinak auzoko premiei erantzuteko bideratu da historikoki. Oinarritzko premiak. Orain premiak bestelakoak dira. Hor dago beste erronka bat: zelan kudeatu behar diren etekin ekonomiko horiek eta zertara bideratu behar diren. Herriak duen boteregune bat dira kofradiak, autonomoak.

Lehenengoz, emakume bi egongo zarete Batzorde Nagusian. Zelan animatu zarete? Zelan hartu duzue kargua?

Goiuri Sopelana: Bigarren lerrotik bada ere, betidanik ezagutu ditut kofradiak, eta proposamena egin zidatenean oso era naturalean animatu nintzen. Aita ere idazkari izan zen, 40 urtez. Errespetuz, baina pozik hartu dut kargua. Lanerako eta ikasteko gogoagaz. Gure inguruan asko animatu gaituzte.

Alaitz Gerediaga: Nire aita ere kofradian ibilitakoa da urte askoan, eta ezagutzen ditut kofradiak. Baina beldur apur bat ere badut. Dena berria da eta ikasi egin beharko dut. Emakumeen parte-hartzea bideratzeko aurrerapausoa emateko ere animatu nintzen.

G.L.: Azken lau urteetan ikusi dugu jende gaztearen parte-hartzea beharrezkoa zela, eta emakumeena ere bai, gizartearen isla izateko.

325.000 euro Euskal Herria kalea berrurbanizatzeko

Atxondoko Udalak 2020ko udal aurrekontuak onartu ditu EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondok 1.780.763 euroko aurrekontua izango du datorren urtean, eta inbertsioetako diru atalik handiena Euskal Herria kalea berrurbanizatzeko lanek izango dute. Lan horiek egiteko, 325.000 euro ipiniko ditu udalak. Lanen helburua Euskal Herria kalea berrurbanizatzeko eta kale horretatik elizara igogailua ipintzea izango dira, besteak beste.

Proiektu horiez gainera, udalak beste hainbat lan egitea ere aurreikusi du. Tartean, haurreskola eta udaletxeko plazako lanak.

Ane Intxausti EH Bilduren bozeramaileak adierazi zuen aurrekontuekin ados daudela oro-

korrean. Hala ere, aurrekontuak onartzeko, aldaketa bi egitea ezinbestekoa zela esan zuen: "Uste dugu ezinbestekoa dela AHTko kaltetuentzat adituez osatutako aholkularitza tekniko bat egotea, baita Urkuzuko proiekturako diru partidatxo bat ezartzea ere".

EH Bilduko kideei erantzunez, aholkularitza ematen jarraituko dutela adierazi zuen Gorka Garate alkateordeak; hala ere, ez zela orain arteko "berdina" izango esan zuen. Bestalde, AHTak eta Urkuzuk partida zehatz bat izango ez duten arren, diru atal bat izango dutela eta herritar guztiei laguntza bat ematea "bermatuta" egongo dela azaldu zuen.

Garai berriro sartuko da Amankomunazgoan, 21 urtean bertatik kanpora egon eta gero

Udalerriak 1998an utzi zuen Amankomunazgoa

GARAI • EKAITZ HERRERA

EAJren eta Herriko Taldearen aldeko botoekin, Garaiko udalbatzak Amankomunazgoan berriro sartzeko eskaria egitea erabaki du. "Gainerako udalerriak elkartzen dituen eskualdeko egiturarik go-

renean, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoan, parte hartzea eta erabakiak era berdinkidean partekatzea egokia" dela iritzi dio udalak. Prozedura amaitutakoan, Amankomunazgoko 9. udalerria izango da Garai.



Prozedura amaitutakoan, Amankomunazgoko bederatzigarren udalerria izango da Garai.

Zornotzan diru bilketa hasi dute, Bizkargin kafetegi soziala zabaldu ahal izateko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Herrera Taldeak beste pauso bat emango du haien jaioterrietatik alde egitera behartutako herritarrei lagundu, eta herrian bilgune sozial bat sortzeko. Bizkargi taberna zegoen tokian, kafetegi-dastategi sozial bat zabaltzeko asmoa dute. Horretarako, diru-bilketa egiteko kanpaina hasi dute, eta kopuru askotako ekarpenak egin daitezke martxan ipini duten web orrian: 10 eurotik 500 eurora arte. Ekarpene egiten dutenek gosariak edo artisautza produktuak eskuratu ditzakete trukean. Ekarpene egiteko, goteo.org atarian sartu, eta bertan *Bizkargi kafe-degustazio soziala* izeneko proiektua bilatu behar da.



Haurreskola berria egingo dute Elorrión.

Haurreskola berria eta Aldapebeitian egoitza egitea dira Elorrioko Udalaren etorkizuneko erronkak

Gobernu taldeak 2020ko aurrekontuen proposamena aurkeztu du aste honetan; datorren astelehenean osoko bilkurara eramango dute eta bertan bozkatuko dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gobernu taldeak 2020ko aurrekontuen proposamena aurkeztu du asteon. Udaletxean egindako prentsaurrekoan, Idoia Buruaga alkateak eta Maria Herrero alkateordeak aurrekontuen nondik norakoak azaldu dituzte.

Alkateak bertan jakitera eman duenez, orain arte mahai gainean egon diren proiektu txikiak garatu, "txikitasunean handi direnak", eta etorkizunean gauzatu diren proiektuak idatziko dituzte 2020an. Hainbat izango dira datorren urtean idatziko dituzten proiektuak; tartean

daude haurreskola berria egitea, Aldapebeitia jauregiko lehenengo solairuan nagusien egoitza egitea, Argiñeta ingurua konpontzea eta San Agustin ingurua atontzea. "Herrian haurreskola berri bat egiteko beharrizana dagoela ikusi dugu diagnostikoan, eta datorren urtean proiektua esleituko dugu", esan du alkateak. Horrez gainera, herritarrek Aldapebeitian jubilatuen etxea egitea eskatu dutela eta hori gauzatzeko proiektua idatziko dutela azaldu du alkateak.

Proiektuak idazteaz gainera, ekintzetara ere pasatuko da Elorrioko Udala. Guztira, 9.100.000

euroko aurrekontua proposatzen dute, eta hortik milioi bat baino gehiago inbertsioetarako bideratuko dute. Proiekturik nagusienetarikoa Urkizuaraneko ur hornidura eta estolderia lanak amaitzea izango da. Gainera, besteak beste, udalak 305.000 euro bideratuko ditu hezkuntzarako, 207.000 euro auzo eta landa eremurako, 118.000 euro Led argien hirugarren faserako eta 140.000 euro herriguneko irisgarritasunerako.

Gobernu taldearen proposamena datorren astelehenean eztabaibatuko dute osoko bilkuran.

"Igurian istripuengatik kezkatuta gaude eta soluzio bat behar dugu"

Iguriako auzotarrek kontzentrazio bat egin zuten joan zen asteburuan, bizi duten egoera salatzeko helburuagaz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

N-636 errepidean, Elorrioko saihebidetza amaitzen den bidegurutze inguruan, hainbat istripu larri gertatu dira. Azken istripua azaroaren 25ean gertatu zen eta pertsona bat hil zen bertan.

Azken istripu horrek Iguriako auzotarrak errepidera atera ditu, eta asteburuan elkarretaratze bat eginez kilometro bateko tarte horri konponbidea emateko eskatu diote udalari. "Urteak pasatu dira Iguria auzoa eta herrigunea oinezbide batez lotzeko eskatu geniola udalari, eta berriro ere eskari horregaz gatoz", adierazi du Augusto Uriarte Iguriako auzo

alkateak. Baina hori ez da auzotarren eskari bakarra izan; errepidea zeharkatzeko bide bat egitea ere eskatu diote Elorrioko Udalari. Baita Iguriako sarrera-irteera biak argiztatzeko eta auzorako bigarren sarreran dagoen hormigoizko horma kentzea ere. "Iguriako auzotarrak kezkatuta gaude eta soluzio bat behar dugu", jarraitu du Uriartek.

Auzo alkateak ANBOTOrri azaldu dionez, asteon udaleko kide batzuekin batzartuko dira eta asteburuan beste batzar bat egingo dute auzotarrek. Batzar bi horien ondoren erabakiko dute hemendik aurrera zelan jokatu dute.



Hainbat elorriar batu ziren elkarretaratzean.

Zelaietatik Atxondoko mugarainoko bidea konponduko du Abadiñoko Udalak

EAJren eta Independentteen aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz onartu dituzte aurrekontuak

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2019ko ekainean Abadiñoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako hitzarmen baten ondorioz, BI-3336 foru errepidea, Zelaietatik hasi eta Atxondoko mugaraino, udalaren esku gelditu zen. Joan zen hilean, 2020ko udal aurrekontuak onartu zituzten, eta aurrekontuetako diru atalik handiena errepide horretarako bideratuko dute. Guztira, Abadiñoko Udalak 1,1 milioi euro izango du inbertsioetarako, eta 526.000 euro erabiliko ditu bide zati hori eraberritzeko. Mikel Garaizabal alkateak jakitera eman duenez, lan horiekin auto kopurua murriztea gura dute eta Muntzaratzen biribilgune bat

egin. Osoko bilkuran, Iñaki Rekalde EAJko zinegotziak "paseorako gune bat" sortu gura dutela azaldu zuen.

Bestalde, Abadiñoko EH Bilduko kideak kritiko agertu ziren gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuekin, baina "etorkizunean aldaketak egiteko atek zabalik" izateko asmoz, bozketaren orduan abstenitu egin ziren. "Aurkeztutakoak anbizio gutxiko aurrekontuak dira. Eta, gure ustez, lau urteko diseinu bat izan beharko lukete", adierazi zuen Unzalu Salterain EH Bilduko kideak. Javier Crespo alkateordeak Abadiñorentzat aurrekonturik "egokienak" direla adierazi zuen.

Mañariko Herriko Taberna guztiz eraberrituko dute

Taberna itxita dagoela aprobetxatuta, aurrekontuetan 85.000 euroko diru atala gorde dute proiektua gauzatzeko

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko udaletxearen azpian dagoen Herriko Tabernak hilabete darama itxita. Hamar urtean kudeatu dutenek ez jarraitzea erabaki dute. Hutsik dagoela aprobetxatuta, tabernan berrikuntza integral bat egitea erabaki du uda-

lak, eta aurrekontuetan 85.000 euro gorde ditu zeregin horretarako. Arkitektoa egiten dabilen proiektuetatik bat aukeratu, obrak egin eta ustiapena lehiaketara aterako dute. Maiatzaren amaieran Mañariko egiten den azokarako taberna zabalik egotea da asmoa.



Hamar urtean taberna kudeatu dutenek ez jarraitzea erabaki dute eta azarotik itxita dago.

Zaldibarko Dominika Talde Feministak urtebeteko ibilbidea ospatuko du

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Urtebete pasatu da Zaldibarko Dominika Talde Feministak "borroka feminista" herri osora zabaltzeari ekin zionetik. Hori ospatzeko, egirata bat diseinatu dute asteburu honetarako, eta zapatuan egingo dituzte ekitaldi guztiak. Trikipoteo feministak emango dio hasiera jaiari, 13:30ean, udal plazatik hasita. 15:00ean emakumeen bazkaria egingo dute gazte txean, eta jaiak segida izango du gero Leire Lazpita bakarlarri zaldibartarraren emanaldia-gaz. DJ Pakyk poteoa alaituko du 19:00etan hasita, eta jaiak 23:00ean amaituko da, gazte txean, bingo musikatuagaz eta karaokeagaz.

Pako Aristi idazlea bidelagun dutela, Zaldibarko hainbat etorkinek lehenengo pausoa eman dute euskara ikasten hasteko

12 bat etorkinek oinarritzko euskara ikastaroa egin dute. Etorkizuneko lanetan lagungarria izango zaie

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Keinu txiki bat da. Pausotxo bat. Baina murgildu dira euskarari, eta euskaraz egiteko ahalegina bere egin dute. Zaldibarrera bizitzera etorritako dozena bat etorkinek lehenengo pausoa eman dute euskara ikasteko. Ikastaroa joan den eguaztenean amaitu zuten, baina ikasitakoa lagungarria izango zaie aurrerantzeko bidean.

"Askok ez dute gramatika kontrolatzen, eta horrek beste metodologia bat lantzea eskatzen du"

Pako Aristi idazleak eman ditu eskolak. Banaiz Bagara elkarteak antolatzen ditu ikastaroak, eta bertako irakasleatariko bat da Aristi. "Etortzen direnetako askok ez dute gramatika kontrolatzen, eta zaila zaie esaldien egitura ulertzea. Horrek, ezinbestean, beste metodologia bat lantzea eskatzen

du, eta horixe egiten dugu. Danimarkako metodologia bat darabilgu klaseetan", azaldu du Aristik.

Besteak beste, Maliko, Maroko edo Senegalgo herrietatik etorri dira Zaldibarrera. Euretariako zenbaitek urteak daramatzate bertan bizitzen, baina badira hile gutxi batzuk daramatenak ere. "Ikasleatariko bategaz gauza bitxia gertatu zait. Bost hilabete inguru daramatza Zaldibarren bizitzen, eta ez du ez euskaraz ez gaztelaniaz egiten. Frantsesez egiten du. Kasu berezia da, hona datozen gehienek badakitelako gaztelania, eta hortik egiten dutelako gero euskarara salto. Beste ikasle honen kasua berezia da. Zuzenean frantsesetik euskarara pasatu da, gaztelaniarik egin barik", azaldu du Aristik.

Eguneroko egoerak

Helburu argi eta zuzena du ikastaroak: hizkuntzarekiko kontzientzia piztea batetik, eta etorkizunean egingo dituzten lanetan lagungarri izango zaizkien tres-



Euskara ikasteko, eguneroko egoerei eta ogibideei lotutako egoerak sortu dituzte klaseetan.

Mali, Senegal edo Maroko dituzte jatorri, baina Zaldibarren ari dira etorkizuna ereiten

nak ematea bestetik. "Normalean, adinduak zaintzeko beharrak, supermerkatuetako kutxazain lanak edo ostalaritzari lotutakoak egiten dituzte etorkinek", dio Aristik. Lan horiek abiapuntutzat hartuta, egunerokotasunari eta ofizio bakoitzari lotutako egoerak sortu

dituzte klasean: azokara erosketak egitera joateko egoerak, adindu bat altxatzen laguntzea, edo gurdun-aulkian ibilita aginduak ematea.

Errepaso bat eginda eta bakoitzaren lurraldeko jakiak dastatuta amaitu zuten ikastaroa.

Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxeak naturaren alde apustu egiten jarraitzen du

Eskolako ikasleek gune berri bat izango dute ortuko ezagutzak praktikan jartzeko.

ELORRIO

Lourdesko Ama Ikastetxearen kokapenak aukera ezin hobea eskaintzen du dituen baliabideak kontuan izanda, naturaren eta ortuaren inguruko gaiak lantzeko: 5.000m²-ko ortua eta 5.000m²-ko baso anitza, oilotegia eta erreka.

10.000m²-ko ortua, baso anitza, oilotegia eta erreka.

ERAIKIN BERRIA

Hile honetan inauguratuko dute, urte osoan zehar bertan gogotsu lan egin eta gero. Bertan, bi gune ezberdintzen dira: alde batetik, klase teoriko-praktikoak lantzeko gunea eta, bestetik, ortuko produktuak manipulatzeko sukaldea.



TXOKO BERDEA

Nahiz eta orain dela 20 urtetik inguruko naturarekin eta ortuarekin harremana izan, orain dela hiru urte ikastetxeak aurrerapauso bat eman zuen. "Txoko berdea" deritzen proiektuaren alde egin zuen apustu, Elorrioko lehenengoak izanik.

Proiektu honi esker ikasleek naturarekiko sentsibilizazioa garatzen dute, ingurune naturalaren gaineko interesa eta jakin-mina pizten zaie, tradizio eta ohiturak bereganatzen dituzte eta, ikerketaren eta esperimendazioaren bitartez, curriculumeko hainbat kompetentzia lantzen dituzte.

"Lurra lantzeari zor diogu garen guztia"

Joseba Errekondo

Mallabiko Goita auzoko bizilagunek salatu dute auzo bidetik kanpoko ibilgailu gehiegi igarotzen direla

Ibilgailu ugari erabiltzen dute auzo bidea aurrerago dauden industrialdeetara joateko. Bidean auzoko nekazariak eta abeltzainak auto horiekin gurutzatu izan direnean, eztabaidak izan dituzte. Bizilagun batzuek seinalizazio hobea, errepidean koskak eta radarrak eskatu dituzte

MALLABIA • IGOR GALARZA

Urte luzez, Mallabiko Goita auzoko bizilagunek kexada jardun dute auzoko errepide nagusitik igarotzen diren gehiegizko ibilgailuak direla-eta. "Asko" igarotzen direla salatu dute. Auto, kamioi zein trailerak ibiltzen dira errepide estu horretan, bizilagunek jakinarazi dutenez. Auzoa zeharkatzen duen errepidea Mallabiko eta Ermuko industrialdeetara heltzen da, eta N-364 errepidetik baino azkarrago heltzen dira. Bizilagunek ahoz aho zabaldu dute gertatzen zaiena, eta, azaldu dutenez, azken egunotan jaitsi egin da zirkulazioa. "Baina altua da oraindino", gaineratu dute.

Auzokideen berbetan, "jasanezina" da etxe albotik horrenbeste ibilgailu igarotzea. Goita auzoko German Landak esan duenez, "ez da igarotzearen kontua bakarrik, autoek errepidean hartzen duten abiadura ere ez da behar den modukoa". Eta abiadura handiaren arriskuak ere aipatu ditu Landak: "Behin, auto batek nire etxe inguruko horma bat jo zuen".



Goitako auzo bidea. Errepide estua da eta gurutzatzen diren ibilgailuek zailtasunak izaten dituzte elkar ez ukitzeko.

Arazorik gehienak seinalizazioa dela-eta izan dituzte. Orain hogeitabat urte, Trabakua auzotik Goitara desbideratzen den puntuan seinaleak berritu zituzten, baina bertatik pasatutako gidariak beti esan izan diete bizilagunei ez dituztela seinale horiek ikusi. Gaur egun, obra egiten ari dira desbideratze horretan. Sarbideko seinaleetan ipintzen du ezin dela autorik edo kamiorik pasatu, auzokoa ez bada. "Hala ere, jendea ez dio ardura.

Berdin-berdin etorri eta joaten dira gure auzotik enpresetara", dio Valentín Mugarzak.

Auzoko langileen trabak

Nekazaritza eta abeltzaintza lotuta dagoen auzoa da Goita. Hainbatek artaldeak dituzte, eta beste batzuk traktorean ibiltzen dira egin beharreko lanak egiteko. Goitako auzo bidea baliatzen dute puntu batetik bestera abereak zein nekazaritza lehengaiak garraiatzeko.

"Askotan gertatu izan da enpresetara doazen auto gidariak eta abarrek ardiak topatzen dituztela errepide erdian, eta behin eta berriro jotzen dute klaxona. Baina ez dute horretarako eskubiderik", esan du Mugarzak.

Goitako bizilagunak jakitun dira gidari guztiak ez direla apropos sartzen auzo bidera. "Hemendik igarotzen diren gidari asko atzerritarrak dira, eta nabigatzaileak hemendik pasatzeko agintzen badie, hemen-

dik pasatuko dira", adierazi dute.

Ibilgailuen masifikazioaren arazoari aurre egiteko, Trabakua bidean seinalizazio argiagoa ipintzea edo auto eta kamioien zirkulazioa kontrolatzea proposatu du Mugarzak: "Seinaleak eta koskak ipintzeaz gainera, radarrak edo autoen sartu-irtenen denbora kalkulatzeko zerbait behar da. Eta denbora konkretu batetik behera igarotzen denari isuna ipiniko nioke", gaineratu du.

Izurtzako Udalak autoen abiadura gutxitzeko egingo du inbertsiorik handiena 2020ko aurrekontuetan

Txaleten aldeko irteeran eta Antonio Txiki okindegiaren parean semaforo berri bana ipini gura dute

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzan aho batez onartu dituzte 2020ko aurrekontuak. Zenbateko osoa 671.915 euro da, eta euretatik 214.385 inbertsioetarako gorde dituzte. Urtean zehar, inbertsioetako zenbatekoa handitzeko asmoa dute, soberakinetik hartuta. Oraingoan, autoen abiadura gutxitzeko neurriena da inbertsio nagusia: 120.000 euro. Semaforo berri bi ipini gura dituzte,

zebrabide eta guzti. Semaforoak gorri ipiniko dira 50 kilometro orduko abiadura gainditzen bada. Txaleten aldeko irteeran egongo litzateke semaforo bat, eta Antonio Txiki okindegiaren parean bestea. Azken hori bihurtzera baten ostean dagoenez, aurretik semaforoa dagoela ohartarazteko gailuren bat ipintzeko eskatu diote Aldundiari. Espaloi zati berriak ere egin gura dituzte.



Txaleten aldeko irteeran egongo litzateke semaforo bat.

Otxandioko azoka inoiz baino indartsuago dator, errementarien erakusketagaz eta ardi txakurren inguruko postuagaz

Aurten, domekan beharrea, zapatuan izango da, egitaraua goizetik gauera luzatzeko; iluntzean aditu baten eskutik euskal dantzak ikasteko aukera egongo da, besteak beste

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko nekazaritza eta artisautza produktuen azokak 20. aldia egingo du bihar, Kementsu elkarteak antolatuta. Normalean, domekaz antolatzen da azoka, baina aurten zapatua aurreratu dute. Aldaketa horregaz, egun osoa Otxandion emateko aukera errazten diete bisitariei, hurrengo eguna jai delako.

Udaletxe pareko plazan, Euskal Herri osotik etorritako 45 postu atonduko dituzte, 10:00etatik 15:00etara. Nekazaritza eta artisautza produktuen ingurukoak izango dira. Postu bat berezia izango da, ardi txakurren ingurukoa. Arraza horren Gorbeia eta Iletsu aldaerako txakur bana egongo da bertan. Ardi txakur arraza galzorian dago eta gaia gizarteratzea da asmoa. Horrez gainera, Nafarroatik etorritako errementari batzuek



Otxandioko azokak 20. aldia egingo du aurten.

ogibide horren inguruko erakusketak egingo dituzte. Bitartean, ez da kale animaziorik faltako Ziortza eta Maider trikitilariekin.

17:30ean, Euskadiko hirugarren mailako aizkolari txapelketako finala ikusteko aukera egongo da. Luis Polanco otxandiarrak parte

hartuko du bertan. Iluntzean, Ziortza eta Maider trikitilarien musikagaz lagunduta, dantzari aditu batak euskal dantzak irakatsiko ditu. Gaztetxeko kontzertuek emango diote amaiera egunari: 23:00etan, Elortegi anaiak eta Eraso taldeen zuzenekoak hasiko dira.



ANBOTO: I.G.

Hareek denporak!

MANIFESTAZIOA ABADIÑON, ERREPIDEKO ARRISKUAGATIK

Joan zen asteburuan, Elorrioko saihebiderearen amaieran — Arrasaterako bidean— dagoen bidegurutzean hainbat elorriar batu ziren gune hartako arriskua salatzeko eta segurtasun neurriak eskatzeko. Errepideko segurtasuna gatazkatsua den gaia izaten da. Bestela, erreparratu orain 14 urte Abadiñon gertatu zenari. 2005eko otsailen manifestazio bat egin zuten Traña-Matienan, errepideko segurtasuna areagotzeko neu-

rriak eskatzeko. 'Denok gara trafikoaren biktimak' eta 'Herritarren segurtasuna orain' izeneko leloak irakurri zitezkeen pankartetan. 1.500 bat lagunek parte hartu zuten, orduan ANBOTOk idatzitako kronikak jasotzen duenez. Aste gutxiren barruan auto istripuan pertsona bi hil zirelako manifestatu ziren. Erakundeen "pasibitate" salatu zuten eta Abadiñoko Udalarri "presio gehiago" egiteko eskatu zioten.

Durangaldea asteen

Elikagaiak xahutzearen kontra agertu dira Amonkomunazgoa eta Urkiola elkarteak

Durangaldea | Durangoko Merinaldeko Amonkomunazgoak eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartek elkartasuna adierazi diote iaz sortutako Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformari. Atzo, Berrizen egindako ekitaldian, elikagaien xahuketaren aurkako manifestua irakurri zuten, eta Plataformara batu ziren euren sinadura manifestura gehituta.

Muntsaritzen bigarren eskuko azoka egingo dute domekan, hainbat posturekin

Abadiño | Muntsaritzen, kantxa alboko plazan, bigarren eskuko azoka egingo dute domekan, 11:00etatik 14:00etara. Leku gutxi dagoenez auzokideek bakarrik jarriko dituzte postuak eta bakoitzak bere mahaia eraman beharko du. Muntsaratz Auzo Elkartek txorizo egosia, sagardoa eta muztioa salduko ditu azokan eta batzen den dirua Angelman Sindromea Elkarteari emango diote. Umeentzako ekintzak ere egongo dira.

Mañariko nagusien beharrizanen diagnostikoa gaur aurkeztuko dute

Mañaria | Mañariko nagusiek zer beharrizan dituzten jakiteko, udalak ikerketa bat egin du aurten. Nagusiekin eurekin eta arlo horretan adituak diren eragileekin batu dira, besteak beste. Diagnostikoa amaituta dago eta gaur, 18:00etan, aurkezpen bat egingo dute Liburutegi Zaharrean emaitzak aurkezteko.



Bizikletentzako bidegorria egokituko dute Olaburu kalean, herriguneko bidegorri osoa lotuko duena

Iurreta | Herritik irteteko noranzko bakarreko bide bihurtuko dute Olaburu kalea, eta errepidearen zati bat 2,5 metro zabalerako bidegorria izango da, proiektua gauzatzen denean. Bidegorri zati horrek 150 metro

izango ditu luzeran. N-634 errepideko obren barruan egiten dabilzan bidegorria, Eleizalde kalean amaitzen dena, Etxegoraino heltzen den oinezkoendako guneagaz lotzea da helburua. Guztira, 37.000 euro inbertitu-

ko dituzte Olaburu lan horietan, eta urtarrilean gauzatzea aurreikusi dute. Iñaki Totorigaguena alkatearen berbetan, "inguru horretan, mugikortasun jasangarria eta segurtasuna sustatzea da helburua".

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).


DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

C E R A M I C A S
MACOBER



ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890

www.macober.com

anboto

Gabonak 2019



famaliving
Durango

Etxean gozatzeko sofak

**GABON
ZORIONTSUAK**



Famaliving Durango - Calle Francisco Ibarra Kalea 8 48200 Durango, Bizkaia
T: 946 41 88 67 durango@famaliving.com www.famaliving.com/durango

Gabon jaiak 2019**ABADIÑO**

Abenduak 13, barikua

18:00 Musikariak taldearen gabonetako kontzertua. Errota Kultur Etxean.**Gabonetako festa Traña plazan****18:30** Txokolatada.**19:15** Done Zezili abesbatzaren emanaldia.**20:00** Kalejira Done Zezili eta Ortzadar Igtb (Marykoro) abesbatzekin.

Abenduak 18, eguaztena

Ipuin kontalaria: Sorgina txirulina**17:00** 4 eta 5 urteko haurrentzat.**17:30** LHko 1-2-3. mailan dauden haurrentzat.

Abenduak 20, barikua

"Arte Ederren fakultatetik igaro den edozeinek daki nor den Albrecht Dürer, eta berezia da San Jeronimo lana bertan eduki ahal izatea, adibidez", azaldu zuen Garazi Arrizabalaga Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendariak. "Baina ez hori bakarrik, Rembrandtegaz eta Goyagaz batera, mendebaldeko grabatugintza markatu zuen Dürerrek", gehitu zuen. Dürerrek eragin nabarmena izan zuen Juan de Iciar kaligrafo durangarraren lanean. Artista biak garaikideak izan ziren, gainera. Horregatik, artista durangarraren lanak ere erakutsiko dituzte museoan.



DOKUMENTALA • JOSEBA DERTEANO

Naturak eta hango bizitzak betidanik erakarri dituzte Lexeia Larrañaga eta Alex Gutierrez. Avis produkzioak ekoiztetxearen bitartez ematen diote bidea euren pasioari. Lan txikiekin hasi ziren, eta orain euren ibilbideko proiekturik anbiziotsuenean murgilduta daude. Azken urte bietan lantzen dabilizan 'Natura bizia' izeneko dokumentalak Euskal Herriko hainbat baso eta parke naturaletako aberastasuna erakutsiko du, bai animaliena, bai landarediarena. Dokumental horretako 20 minutuko aurrerapena Bilbao Mendi Festival jaialdian erakutsiko dute. Gaur, 18:00etan, Bilboko Alondegiko Golen zineman izango da.

Zertan datza dokumentala eta zelan sortu zen ideia?

Alex Gutierrez: *Natura Bizia* proiektuak atal bi ditu: dokumentala eta seriea. Dokumentalaren proposamena aurkeztu genuen ETBn, eta hortik irten zen seriea egiteko aukera.

Lexeia Larrañaga: Gure ekoiztetxea beti dedikatu izan da naturari buruzko dokumentalak egitera. Orain esku artean duguna baino xumeagoak izan dira. Horixe da gure pasioa: natura eta basoko animaliak. Hortik abiatuta, pentsatu genuen polita izango zela zerbait handiagoa egitea: zinemetara zuzendutako dokumental luze bat.

Zer erakusten du dokumentalak?

L.L.: Euskal Herrian paisaia natural aberatsak ditugu, bertan bizi diren animalia miresgarriekin eta mundu hori erakutsi gura dugu. Jendeak ez ditu ezagutzen

Zelakoa izango da seriea?

L.L.: 50 bat minutuko zortzi kapitulu izango dira, eta hainbat zonalde geografiko erakutsiko ditu. Alberto Iñurrategi izango da aurkezlea, eta naturagaz lotutako adituak elkarrizketatuko ditu. Esaterako, kapitulu bat Pirinioen ingurukoa da. Bertan, sarrionaren zentsoa zelakoa den kontatuko dugu, hartzairen egoera zein den, hegazti migratzaileen paseak zeintzuk diren...

Natura ezagutarazi ez ezik kontzientziazio lana ere egin gura duzue?

A.G.: Bai, jakina. Naturan dau-

“Paisaia natural aberatsak ditugu, animalia miresgarriekin, eta mundu hori erakutsi gura dugu”

Euskal Herriak duen aberastasun naturala dokumental batean batzen ari dira Durangoko Avis ekoiztetxeke kideak. Bilbao Film Festival jaialdian aurrerapen bat eskainiko dute, gaur



Lexeia Larrañaga de Val Bergara | 1985

Alex Gutierrez Benitez Durango | 1984
'Natura bizia' dokumentala

kaguna ezagutu ezik ez da ezer egiten berau babesteko. Horixe da proiektu honen helburu nagusia. Dibulgazioa eta kontzientziazioa, biak uztartuko ditugu. Etorkizun hobe bati begira gure esku dagoena egitea da denon lana, eta dokumental hau gure aletxoa da. Gauza asko ematen dugu ezagutara. Adibidez, zergatik dauden babestuta Urkiolako Parke Naturala eta Gaztelugatxe. **Urkiolako Parke Naturala izango da protagonistetarikoa bat?** **A.G.:** Gure parkea da, gure inguruan dagoena eta irudi horiek bereziki zaindu ditugu. **Urkiolako faunako eta florako zer nabarmendu daiteke?**

A.G.: Euskal Herriko parke naturalik gehienak elkarren artean konektatuta daude eta antzeko baso motak ikusi daitezke. Beraz, Gorbeian, Aizkorrin eta Urkiolan nahiko fauna antzekoa aurkitu daiteke.

Zaindu beharreko animalien artean, zein azpimarratuko zenukete?

A.G.: Zaindu beharreko animalien artean, esaterako, saien familiako zainduria dago.

L.L.: Arkaitz txoria ere animalia bitxia da. Pareta bertikaletan ibiltzen da eta zirrikitu txikietan sartzen du bere moko luzea intsektuak harrapatzeko. Neguan gure mendietara etortzen da. Urkiolako parkean hainbat tokitan aurkitu daiteke.

Udaberrian mendi altuagoetara joaten da umatzera.

Grabazioak egiten zabilzate oraindino. Non egon zarete azken egunetan?

A.G.: Joan zen astean, esaterako, Izkiko parke naturalean egon ginen, eta baita Kantabriako mendilerroan ere, han trantsizioko baso bat dago eta. Batean zein bestean, oso argi ikusten da klima ozeanikoaren eragina noraino heltzen den eta non sartzen den mediterraneoko ekosistema. Muga nabarmen eta berezia sortzen da toki bi horietan. Biodibertsitatea bikoiztu egiten da. Atlantikoko espezieak ikusten dira eta, aldi berean, mediterraneokoak ere bai.

Zelako esperientzia izaten ari da animaliak grabatzea?

L.L.: Animaliak ez dira aktoreak, ezin diezu agindu hemen edo han egoteko zuk gura duzun unean. Urteetako esperientziak laguntzen du. Animalien ohituren gainean informatu behar da lehenengo: adituei galdetuz, irakurriz... Grabatzerakoan, animaliangandik distantzia mantendu eta modu etikoa jokatu behar da. Ez ditugu animaliak molestatu gura, ez dugu euren eguneroko jardunean eragin gura eta neurriak hartzen ditugu hori errespetatzeko.

A.G.: Biologoak diren lagunak ditugu eta eurekin ikasitakoa oso garrantzitsua izan da guretzat. Beste faktore inportante bat pa-

“**Naturan daukaguna ezagutu ezik ez da ezer egiten berau babesteko; horixe da proiektu honen helburua**”

zientzia da. 16 edo 17 orduko lanegunak izaten dira sarritan. Gaue tik gauera. Inguruan kamuflatzen ahalegintzen gara. Ondoren, bertara sartu eta itxaron egiten dugu. **A.G.:** Egun batzuetan grabatzen duzunak balio handia du, baina beste batzuetan ez duzu ezer ere lortzen.

Badago grabatzea asko kostatu zai zuten animalien bat?

A.G.: Bat bakarrik esatea zaila da. Ugaztunak zailagoak dira, usaimen garatua dutelako. Norbere gorputz-usaina, desodorantea, kolonia eta horrelakoak kontuan hartu behar dira, baita haizearen norabidea ere. Hegazti batzuek, ostera, oso ikusmen garatua dute eta urrunetik ikusi zaitzakete. Esaterako, arrano beltza oso animalia zaila da grabatzeko. Begi bi ditu, baina sei dituela ematen du. Gizakiagaz ez du oso harreman ona, gure erruagatik, eta jendea dagoen inguruetatik aldentzen ahalegintzen da. Beraz, pazientzia handia izan behar da.

MARKIEGI

ELEKTRIZITATEA ETA ARGIZTAPENA
Tabira 3, 48200 Durango

e-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com
946 203 520



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA • HORTZ-ESKANERRA

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Bizikleta martxa eta erronkaren sari ematea Zaldairen urteurrena ospatzeko

Iurretako mendi taldeak egitarau zabala antolatu du sortu zeneko 10. urteurrena dela-eta

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Hamar urte joan dira Iurretako Zaldai taldea sortu zenetik, eta ekimen sorta prestatu dute hori ospatzeko. Asteazken zehar izan dira hainbat, Juanjo San Sebastian alpinistaren berbaldia, esaterako, baina asteburua begirako menua ere gustagarria da.

Gaur, 19:00etan, Zaldai mendi erronka bete dutenak saritzeko gala egingo dute Askondoko aterpean. Mendizaleek urtebete izan dute Zaldaitik proposatutako mendi guztietatik 10 igotzeko, eta erronka lortu dutenei sari bana emango diete. Ondoren, luntxa egongo da.

Bihar goizerako, Basatzan mendi bizikleta martxaren hirugarren aldia antolatu dute. 10:00etan irtingo dira, Askondoko aterpetik. Ibilbideak 25 kilometro ditu, 1.000



Iaz Zaldai mendi erronka bete zutenen familia argazkia.

metroko desnibelagaz. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 09:00etan hasita, 12 eurotan. Batutako dirua Angelman sindromearen elkarteari emango diote.

Zapatu arratsaldean Iurretako punturik altuenera igoko dira, Gallandara, eta hantxe ospatuko dute

Zaldairen 10. urteurrena. 18:00etan ipini dute hitzordua, Askondoko plazan. Gaua izango da ordurako, baina horixe da helburua; frontalekin Gallanda tontorra argizatzea, ekimenaren leloa errealitate bihurtzeko: *10 urte hamaika argi*. Ondoren, luntxa egongo da.

Ibaizabal eskubaloia klubak bere taldeen aurkezpena egingo du gaur arratsaldean

ESKUBALOIA • JOSEBA DERTEANO

2008an sortu zenetik, Ibaizabal eskubaloia klubak hazten joan da apurka-apurka. Gaur egun emakumeen 10 talde ditu, euretariko 4 federatuak eta 6 eskola kirol mailakoak. Guztira, 120 bat neska dabilta eskubaloian. Horregatik, aurten lehenengoz, aurkezpena egingo dute aberastan hori guztia jendaurrean erakusteko. Gaur izango da, 20:00etan, Landako kiroldegian. Aurten kluba osatzen duten talde guztiek parte hartuko dute ekimenean.

"Durangon eskubaloia eta Ibaizabal klubaren inguruan lanean gabilzan guztiok elkar ezagutzeko eta eskubaloia agerikotasun gehiago ematea dira helburuak", adierazi dute klubetik ohar batean.

Jokaldia

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak



Egutegia antolatzen

Durangoko Azokan eskuratu ohi diren egutegi berrietan zirriborroak egiteko garaia da abendua. Izan ere, 2020a ate joka dugun honetan, mendi korrikalarion buruhaustea denboraldi berrirako lasterketak aukeratzeko joatea izaten da. Hamaika kopa, ranking eta txapelketa daude aukeran, Bizkaitik hasi eta mundu mailaraino.

Datorren denboraldian Euskal Herriko Rankingeko lasterketetan lehiatuko naiz berriro. Aurten leku eta lasterketa ederak ezagutzeko aukera bikaina izan dut ranking horretan parte hartzen nuen bitartean. Badiara lasterketa batzuk, amaitu bezain laster, hurrengo urtean errepikatzen gogoia ematen dutenak, eta nik horrelako bi egin ditut aurten: Araiaiko Mitxarro Bira eta Etxarri-Aranazko Trikutrail.

Lasterketa biak ezagutzen dituen irakurleak jakingo du ezaugarri ezberdin nabarmen bat dutela:

Araian hasi eta bukatzen den lasterketan Aratz mendi ikusgarria igotzen da. Aldiz, Trikutrailen gailur ezagunak igo gabe lasterketa osoa Nafarroa eta Gipuzkoa arteko pagadi ederretan barrena igarotzen da; horrelako ibilbide ederrak ez dira askotan ikusten lasterketetan.

Euskal Herriko Mendi Federazioko lasterketen egutegi ofiziala laster egongo da ikusgai, baina aurreratu digute 2020ko maiatzeko bigarren asteburuan Euskal Herriko mendi korrikalarion festa izango omen dela Araian: 9an kilometro bertikalen Euskal Herriko txapelketa iragarri dute eta 10ean Mitxarro Bira lineako lasterketen txapelketa izango da. Beraz, ondoen prestatuta daudenek bakarrik lehiatu ahal izango dituzte txapelketa biak %100ean.

Asteko kirolaria

"Euskal Selektzioaren deia jasotzea ondo nabilenaren seinale dela uste dut"

Iker Unzueta garaipena eta gola eskuratu ditu asteburuan Euskal Futbol Selektzioagaz

Iker Unzueta futbol jokalaria (Abadiño, 1998) asteburu ezin hobea izan zuen. Europako Herrialdeen arteko Futbol Txapelketan lehiatzen ari da Euskal Selektzioagaz, eta joan zen asteburuan garaipena lortu zuten. Unzueta izan zen golegileatariko bat, eta selektzioa hurrengo fasera sailkatzera lagundu zuen.

Asteburuan emaitza ona lortu zenuen eta, gainera, gola sartu zenuen. Zelan sentitzen zara?

Egia esan, oso pozik. Txapelketan hurrengo faserako sailkapena lortu dugu eta horixe da garrantzitsua. Gainera, sartu genituen

gol bietatik bat nirea izatea ohore bat da.

Zuretzat zer suposatzen du Euskal Selektzioagaz halako txapelketa garrantzitsu bat jokatzek?

Poztasun eta ilusio handia. Azkenean, Euskal Selektzioaren deia jasotzea ondo nabilenaren seinale dela uste dut.

Zer giro dago taldearen barruan?

Oso giro ona. Denbora gutxian harreman estuak egiten dira, familia txiki bat sortuz. Eguneroko elkarbizitzak, gainera, harremanak sortzea eragiten du. Lehenengo egunean aldageletara bakarrik sartzetik Madrilan egunero dena elkarregaz egitera pasatzeak alda-

keta handia suposatzen du elkarrenganako harremanean.

Selektzioan bazaude, seinale denboraldi ona daramazula. Zelan hasi duzu urtea Kulturean?

Denboraldi hasieran hobeto ibili izanaren sentsazioa daukat eta taldea ere halaxe ibili zela uste dut. Etxean oso ondo hasi ginen, baina etxetik kanpora ez genituen itxarondako emaitzak lortu. Momentu honetan, badirudi dinamika txar batean sartuta gaudela, baina talde polita eta lehiakorra dugula uste dut eta esperantza handia daukat honi buelta emateko gai izango garela. Nik behintzat dena jarriko dut neure aldetik.



IKER UNZUETA ARREGI

Abadiño, Futbolaria

Zer esperantza duzue txapelketan?

Oso talde ona dugu, eta urrun ailegatzea gustatuko litzaidake, zelan ez. Batetik, talde moduan Euskal Selektzioa hurrengo faseetara sailkatu barik egon delako hainbat urtean, eta pasatzeak esperientzia polita eta aberatsa suposatzen duelako. Bestalde, arlo pertsonalean, jokatzeko gero eta taldea urrun ailegatuz gero, pozik eta harro sentitzeko aukera mundiala izango litzateke.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAGAZ
 2 logela
IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde jangela eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan. Eguzkitsua.
115.000€ / C.E.E:F

DURANGO
 3 logela
2 komun
ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAGAZ: Altzariekin, sukalde eta egongela terrazagaz. Etxe osoak kapora ematen du. Eguzkitsua.
256.000€ / C.E.E:E

MATIENA
 3 logela
MATIENA. LAUBIDETA: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handia. 2 terraza.
180.000€

DURANGO
 82 m²
ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAGAZ ERRETENTXU: 82 m². Guztiz berriztatua. Berria. Bizitzen sartzeko moduan.
230.000€ / C.E.E:E

DURANGO
 110 m²
4 logela
2 terraza
MADALENA. FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 8 gelatan eta 2 komunetan banatuta. Ezin hobea ofizinak, bulegoak, akademia eta abar jartzeko.
216.000€

ZALDIBAR
 2 / 3 logela
2 komun
ZALDIBAR : 2 logela eta 2 komun. **130.000 €**
3 logela eta 2 komun. **145.000 €**. Trastelekua. Garajea aukeran. BEZ-a barne
130.000€ / 145.000€ Bez-a barne

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.

DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa. 150.000 €.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

BERRIZ
Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukalde, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

IURRETA
Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, **despentsa eta egongela.**

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukalde eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeko baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeko lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatuko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €

ATXONDO: Baserri ikusgarria Martza auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teiltatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

BERRIZ: Baserri ederra, Murgoiotioko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatoko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO
 83 m²
MURUETA TORRE: 83 m². Bizitzen sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
290.000€ / C.E.E:E

BERRIZ
 2 komun
3 logela
BERRIZ: 89 m². 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzia.
232.000€ / C.E.E:E

ABADIÑO
 2 logela
63,57 m². 2 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Garajea eta trasteleku handia. 96 m²-ko terraza.
214.500€ / C.E.E:D

ATXONDO
 3 logela
90 m²
ATXONDO: 90 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gas naturaleko berogailua.
187.000€ / C.E:E

BERRIZ
 3 logela
70,1 m²
BERRIZ: 70,1 m². 3 logela, sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekua. Igogailua aukeran.
180.000€ / C.E:G

ZALDIBAR
 59 m² erabilgarri
3 logela
Bainugela, egongela, sukalde eta balkoia. Orturako edo jolasgunerako lursailagaz (40m² inguru). Eraikin txiki bat ere badauka (4 m²) oiolotoki edo estalpe modura.
87.000€ / C.E:G

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=E**

ERRETENTXU: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

IBAIZABAL: logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTUKALEA: 4 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000 € / E.E.Z=G**

KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela. LEHEN 99.000 € / ORAIN **90.000 € E.E.Z=F**

MONTEBIDEO: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000 € / E.E.Z=F**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukalde, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 € / E.E.Z=E**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ELIZONDO AUZOA: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € / ORAIN **134.000 € E.E.Z=G**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 € E.E.Z=E**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukalde, balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

SARRIA AUZOA: Baserria 4.000 m²-ko lursailagaz. **400.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. **93.000 € / E.E.Z=G**

FAUSTE: Baserria lurzorugaz, **220.000 € / E.E.Z=G**

//MATIENA

ELORRIAGAZAR: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Trastelekua. **65.000 € / E.E.Z=G**

TXINURRISOLO: 3 logela, sukalde, egongela, balkoiagaz eta bainugela **200.000 € / E.E.Z=F**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 € / E.E.E=F**

OLETA AUZOA: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukalde eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000 € / E.E.Z=E**

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukalde, egongela, jangela eta bainugela. **160.000 € / E.E.Z=E**



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrioren...50 m2...igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan Abadiñon. Tel.: 699 17 40 23

PISUA KONPARTITU

IRAKASKUNTZA

Durango. Kaixo, 46 urteko mutila naiz, pisu edo baserri baten bila nabil. Txakurra daukat, pisuan txakurra onartzen den tokia topatzen dut, lanpostu finkoa dut, alokairua 500-550 eurokoabada hobe. Durangon edo hortik hurbil.

Durango. Pertsona batentzako gela alokatzen dut. Lanean dagoen norbait, eta diru-sarrera frogagarriekin (nomina). Alokairua 275€ hilean eta 100€-gaz gastu guztiak estaltzen dira.

Atxondo. Arrazolan (Atxondo) baserri batean bizi garen 3 neska feminista etxea partekatzen pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 650 90 14 91

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzei zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsaldez lan egin dezaket. 3 urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat. Titulua ere badaukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai!

Tel: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 612 42 06 78

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontakuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel: 688 64 59 83

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Berneko

langile moduan moduan, asteburutan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile (Interna) gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaindu, etxeko garbiketa lanak, arropa lisaketa, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu. Durangon, 8 eta 10 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Arratsaldetan, martxoak 20-maiatzak 10 bitartean (Aste Santuan ez). Tel.: 649 563 492

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 643 72 71 98

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

PERTSONA HELDUA ZAINTEKO PERTSONA BEHAR DA. Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 744 988

Erizain laguntzaile gisa zaintzan lan egingo nuke. Zaintzaile gisa lan egiten duen gizona naiz. Mugitu, garbitasuna eta laguntza lanak egingo nituzke. Autonomoa naiz eta kargarik gabe. Durangaldea. Tel.: 653 744 988

IRAKASKUNTZA

IRAKASLE BEHARRA. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa ondo jakitea ere baloratuko da. Tel.: 686 81 02 03

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

afede ko 130€-ko 5 bonoren zozketa

Erantzun galdera honi:

Durangoko Azokaren zein gunetan du tokia umeen literaturak?

Bidali erantzuna: publizitatea@anboto.org helbidera



Botikak

BARIKUA, 13 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 14 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 15 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 16 - 09:00-09:00

ETXEARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 17 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 18 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 19 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak



Ai, ama... Gure **Helene** laster baten baioaku hegaz... Zorionak!



Zorionak, **Izei** Agirretxe Gaztañaga! Musuak morrosko!



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Gari**, lehenengo urtebetetzien eta Jaioneri be zorionak! Egun eder bat pasau etxeko danan partez.



Zorionak, potxolo! Espero dugu egun ona pasa izatea. Muxu asko familia guztiaren partez!



Durangoko **Javi** Bilbaok urteak egin ditu abenduaren 3an. Zorionak eta besarkada handi bat Zabaleko bere lagunuen partez!



Zorionak **Luarrerri** bere hirugarren urtebetetzian etxekuen partez.

Eguraldia

ZAPATUA 14° / 9° ☀️

DOMEKA 13° / 9° ☁️

ASTELEHENA 12° / 7° ☁️

MARTITZENA 10° / 6° ☁️

EGUAZTENA 13° / 4° ☁️

EGUENA 11° / 7° ☁️

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

"Irabazi izana alde batera utzita, esperientzia errepikatzeko modukoa izan zen eta oso ondo pasatu genuen"

PPruek hirukote abadiñarrak irabazi zuen Berbaro euskara elkarteak antolatutako I. Hirukoa Gala; Plateruenean batutako zazpi hirukoteen artean, eurak aritu ziren trebeen

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Lagun batek animatuta parte hartu zuten Igor Galarzak, Sugar Perezek eta Iker Solanok, PPruek taldeak, Hirukoa Galan. Azken momentuan animatu ziren, lanak amaitutakoan pintxoak izango zituztela jakinda. Hirurak lehiakorrek direla aitortu dute eta beste lehiaketa batzuetan ere ibilitakoak direla, Mihiluzen eta Buruberon.

PPruek izenak badu istorio bat atzetik...

Igor: Whatsapp talde bat da, orain hiru urte eta erdi sortutakoa. Parrandarik parranda esan gura du. Brometan bota genuen hasieran, baina, azkenean...

Erroka handia izan zen probak gainditzea?

Sugar: Ez genekien zelako probak izango ziren, eta ez dut esango erraza izan zenik, baina edonork erantzuteko moduko proba eta galderak izan ziren, eta ondo pasatzekoak.

Iker: Handia baino gehiago, polita. **Itxaroten zenuten irabaztea?**

Igor: Hasi baino lehen, otzara zelan banatu eztabaidatzen ibili ginen, nahiko harrotuta! Probetan aurrera egin ahala, azken fasera heltzeko aukera handia genuela ikusi genuen, baina tentsio uneak izan genituen.

Iker: Ez nuen sinesten irabaziko genuenik, eta, azkenean...

Zuen sormenak eta jakinduriak lagundu zizueten, ala zorte kontua izan zen?

Sugar: Denerik apur bat. Momentuan eran-

tzuteko galderak izan genituen lehenengo, eta hor herriaren jakinduriak jokatu genuen.

Iker: Abesti nahiko ezagunen letra ipinita, taldearen izena asmatu beharra ere izan genuen. Hor ere ondo ibili ginen, taldean musikari bat izanda...

Bertsolaria zara, Igor, Sugar musikaria, eta zuk, Iker, zientzia duzu gustuko. Bakoitzaren abilitateak asko lagundu zizueten?

Sugar: Ez dakit, ba, nik! Musikagaz

loturiko galdera askatu zituzten eurek nik baino. 'Patata beroa'-n, zortea da nagusi.

Igor: Durangon ibilita gaude hirurok, eta horrek bai lagundu zigun. Seinale txarra da durangarrentzat hiru abadiñarrek irabazi izana. Egurra eman genien durangarrei!

Errepikatzeko moduko esperientzia izan da?

Sugar: Bai. Irabazi izana alde batera utzita, oso ondo pasatu genuen.

Igor: Ederto pasatu genuen, bai. Itxaroten

Berba bitan

Zaletasun bat

Sugar: Gitarra jotzea

Igor: Bertsoak

Iker: Mendia

Durangaldeko txoko bat

Sugar: Astxiki

Igor: Matienako frontoia

Iker: Anbotoko kobazuloak

Parrandarako toki bat

Sugar: Kostaldeko herriren bat

Igor: Durangaldetik urrun

Iker: Goienkale

Parrandarako abesti bat

Sugar: Txanpon baten truke (Alaitz eta Maider)

Igor: Egunsentian (Kuraia)

Iker: Non e Veran de Estrella Dam (Ezetaerre)

Olentzerori eta Mari Domigiri eskatzeko, galtzontzilloak ala galtzak?

Sugar: Galtzak

Igor: Galtzontzillo premia dut

Iker: Galtzak

ez genuen oso giro polita sortu zen, eta sari immaterial hori nabarmenduko genuke irabazitako otzara baino gehiago.

Iker: Jakina!

Hirukoak eta halako ekimenek euskaraz jokatzeko eta euskara erabiltzeko laguntzen dute?

Iker: Bai. Parte hartu genuen euskal hiztunak ginen. Baina, gehiago zabalduz gero, euskara gehiago erabiltzeko balio dezake, harremanak sortzeko...

Sugar: Gainera, horrelako proba eta lehiak gehiago ikusi ditugu gaztelaniaz. Hirukoan ikusi nuen euskaraz ere egin daitekeela hori. **Zelan banatu duzue zuen artean Errigorako otzara?**

Igor: Orduan pasatu nuen tentsiorik handiena!

Iker: Harri Orri Ar eginda. Igorrek irabazi zuen eta berak aukeratu zuen lehenengo produktua: ardoa. Gero, txandaka, bakoitzak bat hartu zuen. Bakoitzari lote polita tokatu zitzaigun.

Lauhortza

Alina Ahtamon Medikua



Generazio ezberdinak

Gaur egungo generazioa al daketa jarrai batean dago eta gazteen artean gero eta ohikoagoa da Facebook, Instagram, Twitter eta horrelakoak barneratzea eta egunero jarraitzea. Bestetik, haien kezken artean, arroparen marka, fisikoa, festak etab. daude. Gaur arte, 5 generazio ezberdin bereiz daitezke: Silent Generation edo "guda osteko umeak" 1930etik 1948ra bitartean jaioak, gaur egun Espainian 6.300.000 biztanlez osatutakoa. Gerra gatazkak bizi izan dituztenak dira, eta, beraz, euren ezaugarriak garrantzitsuena austeritatea da. Hurrengoak, Baby Boom generazioak dira, 1949tik 1968ra bitartean jaioak, gaur egun 12.200.000 biztanlez. Haiek bakea eta biztanleriaren leherketa bizi izan zuten eta anbizioa dute ezaugarritzat. X Generazioa, 1969tik 1980ra bitartean jaioak, 9.300.000 biztanle, 73ko krisia eta Espainiako trantsizioa bizi izan zutenak; hauen ezaugarria beti arrakasta bilatzea da. 1981etik 1993ra bitartean jaioakoei Y-Generazioa edo Millenials deitzen zaie. Gaur egun, Espainian 7.200.000 biztanle daude, digitalizazioaren hasiera lehenengo aldiz bizi izan zirenak dira, eta euren ezaugarriak garrantzitsuena frustrazioa da. Azkenik, Z-Generazioa, 1994tik 2010era bitartean jaioak, 7.800.000 biztanle. Interneten hedapen masiboa bizi izan dutenak dira eta lotsagabekeria ezaugarritzat hartu dutenak. Zein generaziokoa zara zu? Zein generaziotan gustatuko litzaizuke egotea?

Igor Galarza Intxausti (1998)
Sugar Perez Zallo (1984)
Iker Solana Monedero (1993)
 Abadiño

• Hirukoa Galako irabazleak

Bodegas *Launa*
 Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
 www.bodegaslauna.com

2017
 PEÑIN GIDA
 93 puntu

Gidako Errioxako
 krintzarik onena

